

04/2017 UDALEKO OSOKO BILKURA

2017KO EKAINAREN 26AN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)

Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)

Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)

Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)

Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Pedro M^a Odriozola Zubizarreta

Anoetako udaletxean, 2017ko ekainaren 26an arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Pedro M^a Odriozola Zubizarreta jauna, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2017KO MAIATZAREN 29AN OSPATURIKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2017ko maiatzaren 29ko udal plenoaren bilkuraren akta aho batez onartu da.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2017KO MAIATZAREN 16TIK 2017KO EKAINAREN 15A BITARTE, (...) ZENBAKITIK (...) ZENBAKIRA.

2017ko maiatzaren 16tik 2017ko ekainaren 15a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udal batzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- ANOETAKO HERRI IKASTOLAKO DIRU EKARPENA. 2015-2016 IKASTURTEA.

Anoetako Herri Ikastolak dokumentazioa aurkeztu du, 2015-16 ikasturteko 2 urteko hurrei eskainitako asistentzia finantzatzeko diru laguntza eskatzen duena, eta jasotako dokumentazioan aipatzen du ikasturtea 84.587,24 euroko emaitza negatiboarekin bukatu dutela.

Idazkari kontu-hartzaileak txostena egin du eta bertan azaldu du, besteak beste, likidazio hau:

2015-2016 IKASTURTEKO ANOETAKO IKASTOLAREN LIKIDAZIOA

GASTUAK 2 URTEKO GELA

Pertsonal gastuak

2015-16 ikasturtea

81.089,87

Ikastola osoko hornidurak (22.190,94 x % 10,52)		2.334,49
Ikastolako garbiketa (39.018,74 x % 10,52)		4.104,77
Irakasleen eta zentroaren gastuak		87.529,13
Maileguaren amortizazioa 2016. urtea (33.398,07 x %33,33), lau hiruhileko		11.131,58
Jangela: menuak + monitoreak	2015-2016 ikasturtea	6.218,92
GASTUAK GUZTIRA		104.879,63

SARRERAK

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza	23 ikasle	32.736,54
Kuotak (23 haur)	2015-2016 ikasturtea	8.280,00
Jangelako kuotak (2 haur)		2.464,80
SARRERAK GUZTIRA		43.481,34

DEFIZITA

- 61.398,29

Lehen.- Anoetako Herri Ikastolari 61.398,29 euroko diru laguntza ematea, 2015/16 ikasturteko 2 urteko gelako gastuak eta jangelaren erabilera (menua+monitoreak) finantzatzeko.

Bigarrena.- Ordainketak hiru zatitan gauzatzea:

a. 1. zatia: diru laguntzaren %50a uztaileko lehen hamabostaldian, hau da, 30.699,15 euro.

b. 2 eta 3. zatia: 15.349,58 euroko bi zati berdinetan, Udalak Foru Aldundiarengatik UFFF gisa jasotako 3 eta 4 hiruhilabeteko sarreren arabera.

Hirugarrena.- Puntu honetan onetsi den diru laguntza zuzenaren akordioa, 38/2003, Diru laguntza orokorren legearen 18.2 artikulua aplikatuz, Gipuzkoako Boletin Ofizialean argitaratzea.

Aipatutako proposamena bozketara eraman da eta aho batez onartu da.

4.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREKIN URAREN ZIKLO INTEGRALA KUDEATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA LUZATZEA ONESTEA.

Ikusita 2007ko martxoaren 29an Anoetako Udalak erabaki zuela, Uraren Ziklo Integrala kudeatzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin izenpetu beharreko lankidetzaz hitzarmena onartzea eta ondoren sinatua izan zela.

Ikusita, hitzarmenaren arabera, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Anoetako udalerriko Uraren Ziklo Integralaren kudeaketa gain hartu zuen 2007an.

Ikusita, aipatu hitzarmenak gutxienez 10 urteko iraupena duela, uraren Ziklo Integralaren kudeaketarekin jarraitzeko Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin izenpetu beharreko lankidetzaz hitzarmenaren berri ematen da.

Bozketa eginda, Udalbatzarrak aho batez onartu du hitzarmena, ondoren aipatzen den eran:

Lehena.- 2017ko uztailaren 1etik aurrera uraren ziklo integralaren kudeaketaren eskaintza ematen jarrai dezala Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, zeinaren kide den udal hau. Zerbitzu hau emateko Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Gipuzkoako Urak Saren bidez egingo du.

Bigarrena.- Onartzea Uraren Ziklo Integralaren kudeaketarako lankidetzaz hitzarmenaren testua, eta ondorioz, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utzi uraren ziklo integralaren eskaintzagaritako tasen eta prezioen kudeaketa, kitapena eta bilketa eta hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzugaritako tasaren bilketa.

Hirugarrena.- Uraren Ziklo Integralaren kudeaketarako, Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin izenpetu beharreko lankidetzaz hitzarmen berriaren sinadurarako ahalmena ematea Anoetako Udaleko Alkate-Lehendakariari.

Laugarrena.- Erabaki honi, eta bere edukia erantsi onartu den lankidetzaz hitzarmenaren testua .I. Eranskin moduan.

5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONESTEA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO.

2016ko ekainaren 21eko alkate dekretu bidez ondorengoa erabaki zen, bestek beste:

.../...

“Lehena: Lankidetzaz hitzarmena eta erantsitako 3 agiriak onartzea eta sinatzea, Anoetako Udalaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artekoa, informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri emateko.”

.../...

2017ko maiatzaren 10an, 50/2017 Ebazpena, apirilaren 12koa, argitaratu da EHAAn. Ebazpen hori Gobernuko eta Parlamentuarekiko Harremanetarako Idazkaritzako zuzendariarena da, eta xedatzen du argitara eman dadila Euskal

Autonomia Erkidegoko udalekin sinatuko den lankidetzaz-hitzarmenaren eredia, informazio-, administrazio- eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko.

Hitzarmen honen xedea da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea: alde batetik, sinatzaileek ematen dituzten zerbitzu elektronikoa guztiek aprobetxatu ditzaten, eta, bestetik, informazioa elkarri truka diezaioten. Zeregin horiek deskribatu dira datuak transmititzeko eranskinean eta jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen zerbitzuei buruzko eranskinean.

Gainera, 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sinatutako lankidetzaz-hitzarmen berriaren sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoen oinarriko irtenbide teknologikoak baliatu ahal izango dituzte toki-erakundeek, hamabigarren klausulan eta III. eranskinean xedatutakoaren arabera (eranskin hori 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrarekin administrazio elektronikoen esparruko oinarriko irtenbideak elkarri emateko sinatutako lankidetzaz-hitzarmenari atxikitzeko protokoloa da).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio Zerbitzuetatik Anoetako Udalera zuzendu dira, Eusko Jaurlaritzak hala eskatuta, Lurralde Historiko bakoitzean Foru Aldundiak arduratuko baitira udalei hitzarmen berria bidali eta sinadurak jasotzeaz.

Anoetako Udalak aurretik, 2016ko ekainaren 24tik, hitzarmena sinatuta dauka, 2013ko urriaren 17an argitaratu zen eredia erabilita. Oraingoan Anoetako Udala hitzarmen honetara atxikitzea eskatzen dute.

Bozketa eginda, Udalbatzarrak aho batez onartu du hitzarmena, ondoren aipatzen den eran:

Lehena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta Anoetako Udalaren arteko informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruan zerbitzuak elkarri emateko lankidetzaz-hitzarmen berriaren testua eta I, II eta III. Eranskinak onestea.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eta Anoetako Udalaren arteko informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruan zerbitzuak elkarri emateko lankidetzaz-hitzarmen berriaren sinadurarako ahalmena ematea Anoetako Udaleko Alkate-Lehendakariari.

Hirugarrena.- Akordio honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazio Zerbitzuari ematea.”

Laugarrena.- Erabaki honi, eta bere edukia bere parte bezala erantsi onartu den lankidetzaz hitzarmenaren testua eta I,II eta III eranskinak .II. Eranskin moduan.

6.- **“ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE SA”K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENA.**

Izenpek ematen dituen zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmenak, Udalen eta Izenperen artean sinatua izateko eta Udalek erregistro-erakunde gisa funtziona dezaten B@kQ identifikazio sistema elektronikoa igortzeko helburua du.

Erregistro-erakundetzat jarduteak berekin ekarriko du zeregin hauek egitea: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundeak jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

Bozketa eginda, Udalbatzarrak aho batez onartu du hitzarmena, ondoren aipatzen den eran:

Lehena.- “Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA” eta Anoetako Udalaren arteko IZENPEk jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena onestea.

Bigarrena.- “Ziurtapen eta zerbitzu enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, IZENPE, SA” eta Anoetako Udalaren arteko IZENPEk jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmenaren sinadurarako ahalmena ematea Anoetako Udaleko Alkate-Lehendakariari.

Hirugarrena.- Erabaki honi, eta bere edukiaren parte bezala erantsi onartu den lankidetzaz hitzarmenaren testua, III. Eranskin moduan.

7.- GALDE ERREGUAK.

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkate Jaunak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean; guzti honetaz, nik, Bitarteko Idazkariak, fede ematen dudalarik.